

Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2006ko urtarrilaren 27a.

656. zenbakia



Argazkian, aurkezpen ekitaldiko irudi bat. Uda bitartean lau hilabeterako taldetxoak antolatuko dituzte.

EUSKARA/ Euskara ikasleak, Jarduneko bazkideak, gurasoak eta erretiratuak, gonbidatuta

'Berriketari': uda bitartean taldetxoak osatuko dituzte

EDU MENDIBIL

Euskaldun zaharrak eta euskaldun berriak elkartzea helburu duen *Berriketari* egitasmoa aurkeztu zuten aurreko astean. Jende dezente izan zen kultura etxean egindako ekitaldian. Arrasaten, Elgoibarren eta Lazkaon antzeko egitasmoak abian dira eta bertan parte hartzen ari diren zenbait lagun etorri ziren eguazteneko aurkezpenera. *Zahar berri* (Arrasaten) edo *Berbalaguna*

(Elgoibarren) proiektuek erantzun bikaina izan dute eta horri eustea da *Berriketari* egitasmoaren bultzatzaileen asmoa. Udaleko Euskara Zerbitzua, Jardun elkarteak, AEK Akulu euskaltegia eta Udal Euskaltegia dira euskaldun zaharrak eta euskaldun berriak elkartzeko gunearen bultzatzaileak.

IZENEMATEA ZABALIK
Oraingoz zortzi euskaldun berriak eta sei euskaldun zaharrek eman

dute izena Bergaran. Otsailaren 22ra arte izena emateko aukera izango da eta martxoaren hasieran taldetxoak martxan jartzea da asmoa. Herritar guztiei parte hartzeko gonbidapena egin diete antolatzaileek: euskara praktikatzeko aukera izango dute batzuek eta euskaldun berriekin *Berriketari* egin ahal izango dute besteek.

Interesatuak Udaleko Euskara Zerbitzura, 943 77 91 66 telefonora jo dezakete argibide eske.

Angiozarko San Sebastian Kofradia, 1482ko erakundea

EDU MENDIBIL

Aspaldiko ohiturari jarraituz, Angiozarko San Sebastian Kofradiakoko kideek San Sebastian eguna ospatu zuten egubakoitzean, hilaren 20an. 1482an sortutako instituzioa da Angiozarkoa.

Gaur egun ondoko baserri etxeak dira Kofradiako kideak: Sakona, Zabaleta Gainekua, Zabaleta Azpikua, Lamarain, Lasarte, Zulueta Azpikua, Lopaldoste etxe-ko etxebizitzakoak, Berrandona, Alekona, Zuhazketa, Andiketxe, Jauregi eta Garraztegi Gainekua.

Historian zehar hainbat eginkizun izan ditu Kofradiak, erlijioa eta jatorrian zuen izaera militarra uztartuz. Hala ere, bake giroa bultzatzeko helburu nagusiarekin sortu zuten Kofradia. Izan ere, garai bateko ikusezinak

eta elkarren arteko haserreak baretzea zen Kofradiako kideen eginkizuna.

Gaur egun, anaitasun giro hori bultzatzeko aldera, meza ospatzen dute San Sebastian egunean eta ondoren bazkaria egiten dute, Esan bezala, barikuan hamabi lagun elkartu ziren Beheko Taberna jatetxean egindako bazkarian. Azken 523 urtetan bezalaxe, ostiralean ez zuten hutsik egin urteroko ospakizunarekin.

HERENTZIAZ DATORREN ESKUBIDEA

Sasoi batean, XX. mendearen hasieran, 80 bat etxe ziren Kofradiako kideak. Elgetan eta Angiozarren urte beretik irauten dute bi kofradiak. Herentziaz jasotzen da Kofradiako kide izateko eskubidea.

Aurten Zabaleta Azpikua baserrikoek daukate Kofradiaren ardura.



JOSE ANGEL MIKED

San Sebastian eguna urtero ospatzeko ohitura daukate Angiozarren.

Dixula
BOKATAK
DAUZKAGU

Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

Mireia Alberdi DIETISTA

HELBIDE BERRIA:
Masterreka 11 behea • BERGARA
943 76 33 99

- Osasun arazoak
- Balorazio nutrizionala
- Dieta pertsonalizatuak
- Kirolarientzako dietak
- Ikastaroak

(...) mireia alberdi
DIETISTA-NUTRIZIONISTA

(t) 943 76 33 99
(m) 646 433 458
(e) mireialber@euskalnet.net

HIRIGINTZA/ Udalaren egitasmoaren aurka 600 sinadura inguru jaso dituzte; herritar guztien ekarpenak jasotzeko epea zabalik dagoela dio Udalak

Zabalotegi: herriko komunikazio ardatz nagusi bihurtzeko beldurrez dira auzokoak

EDU MENDIBIL

Zabalotegiko bizilagunek sinadurak batzen dihardute. Auzotarrak kezkatuta daude arau subsidiarioen aurrerapenean jasotakoarekin. Artzamenditik Koldo Eleizaldera (Mariaren Lagundia eta Zabalotegi zeharkatuz) kale berria egiteko aukera jasotzen da bertan. Informazio falta salatu dute auzotarrek: "Orain arte jakin izan dugun bakarra zera da: errepideak Zabalotegin bi noranzko izango lituzkeela eta, ondorioz, gaur diren aparkaleku guztiak desagertu egingo liratekeela. Arteakalea eta Barrenkalea oinezkoendako kale bihurtuko zirenez, Zabalotegi erdiguneko komunikazio ardatz nagusia izango litzateke, baita Elosurako eskualde-errepidearen zati bat ere".

Zabalotegiko bizilagunek ez dute uste beraien auzoa trafikodentsitate altua bere gain hartzeko gauza denik, "kontuan izan-

da gainera auzoak duen jende mugimendua, bai inguruko eskoletan dabilzan umeengatik, bai Mizpirualden bizi direnengatik. Egungo arrisku maila asko igokoz litzateke, baita kutsadura ere. Proiektua ez da egokiena, ezta onena ere. Hirigintzako zinegotziaren esanetan Udalarentzat merkeena baizik. Edozein aldaketa egitekotan, bertakoen bizikaltatea hobetzea espero dugu".

HIRIGINTZA ZINEGOTZIAREN ERANTZUNA

Jose Antonio Etxeberria Hirigintza zinegotziak zera esan digu: "Herritar guztien ekarpenak jasotzeko epea zabalik dago orain, arauen behin-behineko onarpena eman aurretik. Merkeena ez, nik proiektu aproposena zela esan nien. Azalpen guztiak emateko gertu gaude udaletxean. Asmoa proiektu hori aurrera eramatea da, baina ez dugu oraindik ezer onartu. Herria nola ordenatu nahi dugun jaso dugu, besterik ez".



Auzotarrek Zabalotegiko aretoan egindako batzarreko irudia. Asteleheneko osoko bilkuran hitza eskatu dute.

JOSUREN MURGOZU

Atuna, azukrea eta konpresak zenbatuta, hiru tona Sahararako

E.M.

Bubisher elkarteak emandako datuen arabera, Sahararen aldeko kanpaina 3.200 kg inguru jaso dituzte, atuna, azukrea eta konpresak zenbatuta. Jasotako materiala kaxetan sartzen aritu dira egunotan. Materiala sailkatu ondoren, Donostiara bidaliko dute lehenbizi eta otsailaren 12an karabana aterako da Bilbotik, Tinduf-en (Aljeria) dauden errefluxiatu sahararren kanpamentuetara materiala eramateko.



BUBISHER

DIRULAGUNTZA EMATEKO AUKERA

Sahararen subiranotasunaren aldeko Bubisher elkarteak abenduan sortu zuten eta aurten bera izan da Bergaran kanpaina aurrera eramateaz arduratu dena. Iaz

Jasotako materiala sailkatzen eta kaxetan aritu dira egunotan.

baino material gehiago jaso dute eta antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete kanpaina parte hartu duten herritar guztiei.

Oraindik ere dirulaguntza emateko aukera dago, Kutxan zein Euskadiko Kutxan irekitako kontuetan.

LABUR

Langabeei zuzenduta, txirbil-harrotze bidezko mekanizazio ikastaroa Miguel Altunan

Langabeei zuzenduta, txirbil-harrotze bidezko mekanizazio ikastaroa izango da Miguel Altuna ikastetxean, otsailaren 6tik aurrera. 695 orduko ikastaroa izango da. Argibideak eta izenematea Miguel Altunan, 943 76 70 49 telefonoan.

Ikasturtearen bigarren zatirako matrikula egiteko epea zabalik Udal Euskaltegian

Bergarako Udal Euskaltegiak aditzera eman duenez, matrikula zabalik dago ikasturtearen bigarren zatirako. Interesatuak Udal Euskaltegiara, Zabalotegira, edo 943 76 44 53 telefono zenbakira jo dezakete argibide eske.

Santa Ageda bezperarako entseguak egiten dihardute Aranzadi Ikastolako gurasoek

Santa Ageda bezperarako entseguak hasi dira dagoeneko Aranzadi Ikastolako gurasoak. Hurrengo entseguak urtarrilaren 30ean eta otsailaren 2an egingo dituzte, San Martin plazako eraikinean (Telefonikatik sarrera), 19:00etan.



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara



ORMAZABAL
FISIOTERAPIA ZENTROA

Bizkarreko mina • Bihurrituak
Tendinitisa • Masajeak • Erreuma
Etxeetara fisioterapia
Errehabilitazioa

Telleria 6 bis, 11 bulegoa
Labegarieta ind. BERGARA
Tel.: 943 76 53 35 / 626 90 06 08
ormazabalfisioterapia@yahoo.es

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ELKARRIZKETA

AMPARO URKOLA/PSIKOLOGOA

“Nork bere buruarekin barre egitea oso sanoa da; jarrera positibo horrekin lan handia egina dago”

EDU MENDIBIL

Udaleko Kultura Zerbitzuak antolatutako barreterapia ikastaroa ematen ari da Amparo Urkola ordiziarra. Gabonen osteetik 14 lagun ari dira ikastaroan. Martxora bitartean astelehenero elkartuko dira Arrizuriagan, pare bat orduz.

Zein da ikastaroaren helburua?

Helburua barre egitea eta ondo pasatzea da. Horretarako ezinbestekoa da lotsak eta beldurak kentzea eta besteekiko irekitzea. Jokoak eta horrelakok egiten ditugu elkarrekin. Jolastuz hasten da barrea askotan. Antzerki tailerretan erabiltzen diren zenbait teknika aplikatzen ditut ikastaroan. Poliki-poliki elkarrekin konfiantza hartuz eta norberaren beldurrak gaindituz barre egitea da helburua.

Oso terapeutikoa omen da.

Zalantzarik ez. Organismorako hain onuragarriak diren

endorfinak sortzen dira barrea-rekin eta pozik egotean denak dira abantailak. Gauzak egiteko gogoz zaude, aske sentitzen zara, energia positiboa transmititzen duzu... Aurpegiko muskuluak eta diafragma lantzen dira baita.

Eta negarrarekin?

Negarra ere oso inportantea da, antsietatea edo barruko mina kanporatzeko. Guzti hori atera egin behar da, baina biktima papera hartu gabe.

Nola aktibatzen da barrea?

Norberaren jarrera oso garrantzitsua da: harkor egotea ezinbestekoa da. Eta gure buruaz barre egiteko gertu baldin bagaude ere, hobeto oraindik. Hortik

aurrera ez dago barrea pizteko formula magikorik, baina jarrera positibo horrekin lan asko egina dago. Kanporatu ahal izateko lehenbizi poza barruan sentitu behar da.

Barre egiten ikasi egin daiteke ala gauza genetikoa da?

Neurri handi batean nortasunarekin lotuta doa, baina lagun artean edo inguruan jasotzen duzunak zerikusi handia dauka barre egiteko joera izateko ala ez.

Euskaldunok badakigu barre egiten?

Ez dakit ba... Nahiko serioak garela esango nuke. Orokorrean kostatu egiten zaigu zabaltzea. Hala ere, behin konfiantza irabazita badakigu barre egiten. Elkarri adarra jotzeko joera, behintzat, badago gure artean.


Zuk zerekin egiten duzu barre?

Bi urteko alabarekin asko... Seme-alabekin barre egitea oso inportantea da, lotura berezia sortuko delako gurasoen eta seme-alaben artean eta, aldi berean, gehiago disfrutatuko duzulako.

“Seme-alabekin barre egitea oso inportantea da, lotura berezia sortuko delako”



E.M.



Santi Barreñaren zilarrezko ezteiak

Miguel Altuna ikastetxe lankideek omenaldi bazkaria eskaini zioten Santi Barreñari. Dagoeneko 25 urte egin ditu Barreñak Miguel Altuna ikastetxean. Usurbildarra jaiotzez, Ermuan bizi da eta Teknologia Elektrikoko irakaslea da. 40 lagun inguru elkartu ziren bazkarian (Santiren emaztea tartean) eta Ina Larrañaga Miguel Altunako zuzendariak oparia eman zion Santiri lankide guztien izenean. Zorionak!!!

LABUR

Aldasoro dendaren zozketan, Rosa Mari Ormazabal eta Ane Kortabarria sarituak

Aldasoro oinetako dendak bere bezeroen artean joan den urtarrilaren 5ean egindako zozketan Rosa Mari Ormazabal oñatiarra eta Ane Kortabarria bergararra izan dira sarituak.

Hain zuzen ere, Anek zein Rosa Marik lau oinetako pare jaso dituzte sari gisa.

EHNA tramitatze aukera izango da zapatuan Barrenkaleko Irizar jauregian

Bai Euskal Herriari taldeak deituta, EHNA tramitatze aukera izango da bihar, zapatua, Irizar jauregiko sarreran (Barrenkalea 33), 11:30etik 13:30era.

Interesatuak errolatze-agiria eta hiru argazki eraman eta 15 euro ordaindu beharko dituzte. Hileroko azken zapatuan EHNA tramitatuko dute Irizarren.

REMENTERIA
Altzariak


Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan

Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

Aldoka
Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA



JAUJA
KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043




Grua zerbitzua
Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak
gotelea
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02
666 517 295



Urko Irizar, Unai eta Aitor Alberdi eta Kepa Irizar. 25 urtetik gorakoendako Espainiako Txapelketan izango dira Oviedon.

IGERIKETA/ Tolosan junior mailako txapelketa jokatu da eta Oviedora Irizar anaiak eta Alberdi anaiak doaz

Oviedon eta Tolosan lehiatuko dira igerilariak

EDU MENDIBIL

Zapatuan eta domekan jokatu da junior mailako Gipuzkoako Txapelketa, Tolosan. Bergara Igeri Elkartea ordezkatzuz, Ana Balentziaga, Elisa Kortabarria, Mikel Labaka, Nielka Iburguren,

Erik Iñarra, Erik Gorostiaga eta Peru Alustiza izango dira Tolosan. 14 eta 15 urtekoak dira junior mailan ari direnak.

Amaia Andueza entrenatzaile oñatiarrak zera adierazi digu: "Ikusi behar zer nolako maila ematen duten. Hala ere, gehienak

Euskal Herriko Txapelketarako sailkatzea espero dugu". Otsailaren 4an eta 5ean Ordizian izango da Euskal Herriko Txapelketa.

BETERANOAK, OVIEDON

Bestalde, Unai eta Aitor Alberdi eta Kepa eta Urko Irizar Espai-

niako Master Txapelketan lehiatuko dira asteburuan, Oviedon.

Igeri Elkartean 79 lagun ari dira: 14 neska-mutiko aurre-benjamin mailan, 25 benjamin mailan, 9 alebin mailan, infantil mailan 12 igerilari, junior mailan beste hamabi, senior mailan hiru

lagun eta, azkenik, master lehiaketatan, 25 urtetik gorakoei zuzendutako probatan, beste lau lagun. Amaia Anduezarekin batera, Neritzel Albusua eta Nerea Anduega ari dira entrenatzaile lanetan. Gaztetxoekin arduratzen dira Nerea eta Neritzel.

Bost futbol partidu jokatu dira aste bukaeran Ipintzako zelaian

E.M.

Oraingo aste bukaeran bost futbol partidu jokatu dira Ipintzako zelaian. Ohorezko gazte mailan, Bergarak Union Txikiren aurka jokatu du zapatu arratsaldean, 18:00etan.

Azken jardunaldian Eibartarrak taldearen aurka hiruna berdindu ondoren, Oreretako Union Txiki taldea bisitari izango dute Abel Maestre eta Markel Egañaren mutilek. Zapatuan beste bi partidu jokatu dira: infantil mailakoak Kurtzebarriren aurka jokatu du, 10:00etan, eta bigarren kadete mailakoak Intxurre hartuko du, 16:00etan.

GAZTETXOAK ETA NESKAK DOMEKAN
Domekan, infantil mailako gaztetxoek Vasconiaren aurka jokatu dute, 11:30ean, eta nesken



ASTELEHENEN GOIENKARIA

Txapeldunak izateaz gain, gol gehien egin duen taldea izan da alebin mailakoa.

senior mailan Bergarak Intxaundi hartuko du, 16:00etan.

ALEBIN MAILAKOAK, TXAPELDUN

Alebin mailako taldea bere multzoko txapelduna izan da, Lagun

Onak taldeari 4-1 irabazi ostean. Partidu bakarra galdu dute bergarak gaztetxoek. Orain, Real Union, Antiguoko eta Anaitasunaren aurka jokatu dute.

LABUR

Junior eta kadete mailako saskibalo partiduak kiroldegian eta Mariaren Lagundian

Kadete mailako nesken saskibalo taldeak Atletico San Sebastian hartuko du bihar, zapatua, Mariaren Lagundian, 16:00etan. Junior mailako mutilek, berriz, Aloña Mendiren aurka jokatu dute Labe-garaietako kiroldegian, 19:15ean.

Udaberriko Txapelketako bi partidu gaur arratsaldean Udal Pilotalekuan

Udaberriko Txapelketan, bi partidu jokatu dira gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 20:00etan. Lehen kadete mailan, bergararrek Añorgaren aurka neurtuko dituzte indarrak eta bigarren gazte mailan, Bergarako eta Tartaldeko bikoteak izango dira aurrez aurre.

LABEGARAIETAKO FUTBITO TXAPELKETA

ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: Mongatxurak-Fit Autom. Teatekh
10:30: Teatekh-Pirulotarrak. Fit Automoci.
11:30: Niu Tim-Txakurra. Pirulotarrak
16:00: A Ze Flaxa-Santana. Belengua
17:00: Belengua-Irubi. Santana

DOMEKAN, KANPOAN

09:30: SDTNT-Errotagain. Kalaveras
10:30: Pub Irish-Kalaveras. Errotagain
11:30: Komando-Paco Cia. Niu Tim
12:30: Niu Tim-Guri Guri. Komando Pipe.
16:00: Agirrebeña-Egurre. Mekanaki
17:00: All Blacks-Mekanaki. Agirrebeña

IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua
Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

EDEL
TAPIZ DENDA

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,
koltxak, edredoia, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

ELKARRIZKETA

JOKIN ETXANIZ/ASPE PILOTA ENPRESAKO ZUZENDARI TEKNIKOA

“Aimar Olaizola eta Oier Zearra gainerakoak baino maila bat goraxeago daudela uste dut”

AINTZANE IRIZAR

Binakako pilota txapelketa nagusia jokatzeko dihardute eta buru-belarri dihardu lanean Jokin Etxanizek. Aspe pilota enpresako pilotariak entrenatzen ibiltzen da hango eta hemengo frontoietan. Jokatu, berriz, gutxi jokatzeko duela azaldu digu.

Badira lau bat aste binakako txapelketa hasi zela. Zelako hasiera ikusi duzu?

Partidu politikak eta gogorrek ikusteko aukera izan dugula uste dut, nahiz eta lehendabiziko fase honetan ez den bikoterik kanporatzen. Argi geratu da asteotan jokatzeko dihardutena txapelketa dela, eta pilotariak gogoz ikusi ditugu. Noski, partidu ez hain onak ere izan dira batzuk, baina hori ere normala da. Egia da pilotari batzuk justu samar iritsi direla txapelketara, baina lau asteotan puntuan jartzeko aukera izan dute.

Oraingoz, txapelketak ezustekorik eman dizu?

Olaizola I.arekin eta Otxandorenarekin kontuz ibili behar dugula ikusteko balio izan digu lehenengo fase honek. Jendeak ez zuen kontuan hartzen bikote hori, baina erakutsi dute bikote sendoa osatzen dutela.

Zure iritzi, zeintzuk dira faboritoak?

Aimar Olaizola eta Oier Zearra beste guztiak baino maila bat goraxeago daude, nire ustez; bikote handia osatzen dute. Euren maila ematen badute, aukera handienak izango dituzte; dena dela, irabazteko asko egin beharko dute. Txapelketa nagusia da eta garrantzitsuena da momentu kla-beetan ondo jokatzeko. Final-laurdenetara ondo iristea bereziki inportantea da, partidu gogorrek izango direlako. Asier Olaizola eta Otxandorenaren ere hor daude, lehen esan dudan moduan. Bestalde, Martinez de Eulate eta Martinez de Irujo bikotea ere oso ondo dabil; Eulaterendako, gainera, txapelketa hau jokatzeko duen lehendabiziko aldia da.

Zuk zeuk jarraitzen duzu frontoietan?

Zuriz jantzita, ez; frontoietan botilero edo pilotariak entrena-

tzen jarduten dut. Pilotari moduan, baina, erretiratuta ez nagoen arren, oso gutxi jokatzeko dut. Momentu honetan, nire lehentasuna da zuzendari tekniko moduan Aspe egiten dudana. Beharra dagoenean eta enpresak eskatzen didanean, partiduren bat edo beste jokatzeko, besterik ez.

Jokatzearen hutsunea nabaritzen duzu?


Bai; neguan ez asko, baina bestela bai. Ondo nagoenean, nabaritzen dut hutsunea, bai. Dena dela, frontoietan frontoi pilotariak entrenatzen ibiltzen naitenez, eurekin jokatzeko dut eta gustura geratzen naiz.

Binakako txapelketan zenbat aldiz parte hartu duzu?

Zortzi edo bederatzia aldiz; Zezeagarekin, Galartzarekin, Arretxerekin, Lasarekin eta Elkororekin. Zezeagarekin irabazi nuen behin txapelketa, baina urte hartan, Asegarcek bere aldetik antolatu zuen txapelketa. Arretxerekin eta Elkororekin, berriz, finalera iritsi baina galdu egin genuen.

Binakakoan moldatu izan zara ondoen, ezta?

Hala da, bai; lau t'erdian saiatu saiatzen nintzen, baina ez nintzen batere ondo ibiltzen. Behin finalerdietara ailegatu nintzen, baina horretan geratu nintzen.



GOIENKARIA

“Oraintxe hasiko da benetako txapelketa; orain artekoak balio izan digu zuzenketak egiteko”

Zorte on, bada, txapelketako hurrengo fasean.

Bai, beharko dugu; gainera, orain hasten da benetako txapelketa. Orain artekoak, batez ere,

balio izan digu ikusteko besteak eta gu geu zela gauden, eta horren arabera beharrezko zuzenketak egiteko. Txapelketaren zatirik gogorrena oraintxe hasiko zaigu.

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

SANTOS

TIEN 21

Etxetresna elektrikoak eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

HIRU BIDE

ЖАТЕТХЕА-БЕНТА

Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45

FRONTOI

TABERNA

Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

BERGARA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

JOXAN

ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behe. Bergara
943 76 55 00

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

FOROA/ Bergara, euskara eta teknologia berriak lotzea du helburu

Jardun elkarteak foroa jarri du bere webgunean, herritarren iritziak jasotzeko

IRATI AGIRREAZALDEGI

Elkartearen webgunea baliatuz foro bat ireki du Jardunek. Euren asmoa da bergararrei aukera ematea herriarekin lotutako gaien zein bestelako gainean dauzkaten iritziak plazaratzeko. Horretarako bergararrak parte hartzerantz animatu nahi dituzte.

Orain dela hilabete eta erdi inguru ipini zuen Jardun elkarteak foroa abian.

Denbora tarte honetan jendeak foroak iritziak irakurri dituela esan digute elkartetik, baina euren iritziak ematen dituztenak oso gutxi direla oraindik. "Guk nahi genuke jendea animatzea iritziak ematera eta baita gai berriak proposatzera ere", esan digu Jon Unamunok, Jardun

elkarteko dinamizatzaileak. "Uste dugu gaztelaniazko foroetan parte hartzen duela jendea, baita bergararrek ere, eta gure foroan gauza bera egiteko aukera eman nahi diegu herritarrei, baina betiere euskaraz".

Orain arte landutako gaiak askotarikoak dira: kultura, gazteria, euskara, Internet... "Pil-pilean dauden gaiak ere ikusi ditugu; tabakoaren legea eta derbia, esaterako", esan digu Jonek.

HERRITARREN ERREFERENTZIA

Bestelako erabilerak ere eman nahi dizkiote foroari Jardunek. Jon Unamunoren esanetan, "badago agenda eta hitzorduen gaineko atal bat, eta edozein herritarrek eman dezake hitzordu berri baten gaineko informazioa. Horrela, pixkanaka lortu nahi dugu foro hau herritarren erreferentzia-puntua izatea".

Jardun elkartearen helburuetako bat da Bergara, euskara eta teknologia berriak lotzea.

Beraz, Bergarako kontuei buruz berba egiteko foroa izango da. www.jardun.net webgunean dago foroa eta parte-hartzeak ez du aparteko zailtasunik. Bertan erregistratu baino ez da egin behar. Jardunekok foroa erabiltzera animatu nahi dute jendea, baita ingurukoei foroaren berri ematera ere.

*'www.jardun.net'
webgunean ipini
dute Jardun
euskara elkartearen
foroa*

JARDUN EUSKARA ELKARTEA

http://www.jardun.net/

EUSKARAK BATZEN GAITU TOPAGUNE
15. urteurrena

2006.eko Urtarrilaren 25, asteazkora

Bilatu: Bilatu

Erabiltzaile: Gakoa: OK

Erregistratu
Foro hauetan parte hartzeko topagunean erregistratuta egon behar zara

MEZUA	Irakurketak	Erantzunak	AZKEN MEZUA
Proba	238	1	2005ko Abenduaren 13a (20:04) -> Tonko
INTERNETA	206	4	2006ko Urtarrilaren 17a (20:24) -> matxin
GAZTEAK	200	10	2006ko Urtarrilaren 25a (15:27) -> Illooonna
UMEAK	175	4	2006ko Urtarrilaren 10a (17:27) -> Illooonna
ETORKINAK	169	8	2006ko Urtarrilaren 04a (13:16) -> Mertzxe
BERGARA	170	1	2006ko Urtarrilaren 03a (17:40) -> Tonko

Foroan parte hartzeko erregistratu baino ez da egin behar.



Martin Guridi margolariaren bakarkako lehen erakusketa

Urtarrilaren amaierara bitartean Nahikari tabernan Martin Guridi Alustiza pintore bergararraren lanak izango dira ikusgai. Bakarka egiten duen lehen erakusketa da, eta 18 olio lanetan, argazkikoa bezalako Bergarako txokoak zein Gipuzkoako paisaiak ikusteko aukera eskainiko du. Taila eta eskultura lanekin hasi zen Guridi, baina gaur egun margolanak egiten ditu.

LABUR

Domekan urteko lehen kontzertua eskainiko du Udal Musika Bandak, pilotalekuan

Aurtengo lehen kontzertua egingo du Udal Musika Bandak domekan 12:30ean Udal Pilotalekuan. Bost pieza joko dituzte: Loperen *Gallito* pasodoblea; Glucken *Efigenia en Aulis* Obertura; Glez. Bastidaren *Lorea* zortzikoa; J. Serranoren *Alma de Dios* zarzuelako aukeraketa eta *Toy Story II* filmaren soinu banda, Newmanena.

Frugoni eta Celeghin italiarren emanaldia zapatu arratsaldean San Pedron

Silvio Celeghin organo joleak eta Alberto Frugoni tronpetak joleak emanaldia egingo dute bihar, zapatua, San Pedro parrokian, 20:00etan. Mendelssohn, Verdi, Piazzolla edota Vincenzo Belliniren piezak eskainiko dituzte.

San Paulo jaietan afaria, txapelketak eta dantza erakustaldia izango dira, asteburuan

Urtarrilaren 25ean hasi ziren Uberan San Paulo jaiak eta asteburuan ere izango da ekitaldirik. Gaur, bakailao jana izango da soinu-joleak lagunduta. Zapatuan 12:00etan patata tortilla txapelketa; 16:00etan mus txapelketa eta umeendako kukainak; 18:00etan txokolata jana. Domekan 12:00etan meza izango da eta ondoren, dantza erakustaldia. Salda eta txorizoa banatuko dituzte.



Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA


Pintura-lanak
orokorrean
•
Pintura industrialak
•
Zoru arinak:
sintasolak, moketak...

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

ZABALA JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

MINGAINARITIRAKA



Aitor Gartzia

ÑAÑARRI LAN BERTIKALAK

Ordiziarra da Aitor; Aitor Elkoroiribe bere bazkidea, berriz, bergararra. Lan bertikaletan jarduten dute biak: fatxadak pintatzen, leihoak garbitzen... Zintzilik egin daitekeen edozein lan egiten dute Ñañarri enpresako bi Aitor hauek.

Arriskua gustuko duzu edo lanaren parte da, beste barik?
Nire lanean ez dut arriskurik ikusten; segurtasun neurri handiak hartzen ditugu.

Zure burua ausartzat daukazu?

Ez; ero samarra naiz, hori bai, baina ausarta, ez dut uste.

Eskalatzaileak zarete, ezta?

Bai, baina geroago eta gutxiago joaten naiz ni eskalatzerara; aste osoa zintzilik pasatu eta gero, nazkatu ere egiten naiz. Kobazuloetan ibiltzea gehiago gustatzen zait.

Espeleologiarako inguru bat?

Aralar aldea eta Deba ingurua. Arantzadi elkartekoekin ibiltzen gara espeleologian.

Zure lanean zer da gehien gustatzen zaizuna?

Ordutegi jakinik ez daukagula eta beti lan ezberdinak egiten ditugula.

Eta gutxien?

Inoiz ez dugula jakiten zein ordutan bukatu dugun; hainbat lan, gainera, ez dira batere atseginak izaten.

Ze beste zaletasun daukazu?

Parranda.

Jairik onenak?

Hernaniko San Joan jaiak, duda barik.

Amorrazten zaituen zerbait?

Asteburua ez aprobetxatzeak amorrazten nau, planik gabe pasatzeak asteburu osoa; oraingo asteburuan horixe gertatu zait, eta amorratuta nago.

Eta pozez saltoka jartzen zaituena?

Lagun guztiak elkarrekin egoteak asko pozten nau.

Egunkarian zer da lehenengo irakurtzen duzuna?

Eguraldia, garrantzitsua da eta gure lanerako. Egunotan sekulako hotza pasatzen dihardugu.

Zer albiste irakurri nahiko zenuke biharko egunkarian?

Preso guztiak etxeratu egin dituztela.

Amets bat?

Hainbat lagun ikustea.

AINZANE IRIZAR

BERGARARRAKMUNDUAN

JOSE MORETON ETA VISITACION ZUBIA

90 ETA 83 URTE/ NORMANDIAN, FRANTZIAN BIZI DIRA 1949. URTEA EZKERO

“Gerraren ostean ilobak itzultzera etorri ginen Normandiara, eta bertan geratu ginen”

EDU MENDIBIL

Visitacion Zubia eta Jose Moreton senar-emazte bergararrek 50 urtetik gora daramatzate Frantzia, Normandia. Hain zuzen ere, 1949. urtean alde egin zuten Bergararik. Visitacionek zera adierazi digu telefonotik: “Il. Mundu Gerra izan zenean, Juanita nire ahizpetako bat Frantzia bizi zen eta euren bi seme-alabak, Estefania eta Daniel Aragon, guregana bidali zituzten, Bergarara. Ondoren, ilobak itzultzera joan ginen Normandiara, eta bertan geratu...”.

Ordurako lau seme-alaba zeuzkaten Josek eta Visitacionek. Frantzia beste zortzi izan zituzten, hirukiak eta bikiak tartean. Gaur egun hamaika bizi dira: Dolores da zaharrena (65 urte) eta Terry gazteena (40). Terry Bergaran bataiatu zutela argitu digu Visitacionek.

Esan bezala, Normandia, Rouenen bizi dira Visitacion eta Jose. Osasun arazoak direla medio, denbora luzean etxetik atera gabe dago Visitacion (83

Hamabi seme-alaba izan zituzten Josek eta Visitacionek; horietako lau Bergaran jaioak

urte). Hala ere, indartsu sumatu dugu telefonotik. Berak azaldu dizkigu familiaren nondik norakoak: “Alabetako bat etortzen da gurera, etxeko lanekin laguntzera. Etxean ematen dut egun osoa, eta ortura bakarrik ateratzen naiz... Gizona, berriz, hara eta hona ibiltzen da. 90 urte egingo ditu maiatzean eta sasoi onean dago. Bestalde, seme-alabak eta bilobak sarritan etortzen dira bisitan. 18 biloba ditugu. Aspertzeko astirik ez dago”.

Jose Moreton abenduaren hasieran izan zen azken aldiz Bergaran, Beasainen bizi den ahizpari eta Bergaran daukan anaia, Juanitori, bisita egiten. Beste anaia bat ere, Antonio (83

urtekoa), Normandia bizi da eta beste ahizpa bat Italian, Sizilian. Erretiratu arte Kuhlman enpresan jardun zuen lanean Josek. Hain zuzen ere, 29 urte egin zituen Josek produktu kimikoen enpresa horretan: peoi lanetan hasi eta kontramaisu kargua izatera heldu zen.

Visitacion Zubiak seme-alabak aurrera ateratzen eta etxea gobernatzeko nahiko lan izan du. Ondo moldatu izan dira eta gustura bizi dira Frantzia: “Euskal Herriko eguraldiaren antzekoa daukagu hemen. Hala ere, hemen ez du elurrik egiten eta paisaia aldetik hango mendien hutsunea nabaritzen dut”, diosku Visitacionek. Bera Masterrekako 17. zenbakian jaiotakoa da, eta askotan akordatzen da Bergararekin.

Josek eta Visitacionek lagun handi bat galdu zuten iaz: Demetrio Arrieta bergararra Rouenen bizi zen baita, eta askotan egoten ziren Demetriorekin eta haren emaztearekin. Demetrioren anaia Anselmok laguntza paregabea eskaini digu elkarriketa hau egin ahal izateko. Eskerrik beroenak berari.



Argazkian, Jose Moreton eta Visitacion Zubia (erdian), seme-alaba, biloba eta birlobekin, familiako ospakizun baten.

disdira
ile apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55


Irrintzi kafetegia
Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

Ganbara
TABERNA
Heure erara ibiltzeko!
Irala z/g.
BERGARA
Tel.: 943 76 55 75

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

UREDERRA
ITURBINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Zein da mendixka honen izena?



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MADDI GOENAGArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Maddi!
Galderaren erantzun zuzena: **Barrenkalen.**



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA:

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Orlando tomate frijitua

410 g-ko lata + %20 doan

0,51€

85 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

San Antoneko krosa, 1998

San Antoneko krosak 28. ekitaldia bete zuen joan den urtarrilaren 15ean. Tradizio handiko lasterketa da Murinondo auzoko jaietan jokatzeko dena. Alboko argazkia 1998. urteko lasterketakoa da. Aitor Erañak irabazi zuen orduan proba, Otxoa eta Jon Arantzabalen aurretik.

Argazkian, orain dela zortzi urteko partaideak ikus ditzakezu, lasterketari ekiteko prest. Ezkerretik eskumara hauek dituzue:

Jose Galan, Txeles Santos, Carlos Lizarralde (atzerago), Anselmo Gomez, Mikel Gallas-



tegi (mutikoa), Roberto Zurro, Fermin Hernandez (Zurroren atzean), Juan Luis Aiastui, Javi Moreno, Jon Arantzabal, Aitor Rementeria, Jose Luis Ugalde, Carlos Telleria, Aitor Eraña, Otxoa eta Jose Luis Fernandez.

Argazkia: Berrigara

ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33), Elgetako kultura etxera edo Oñatiko Laixanera. Zain gaituzu!

FARMAZIENTXANDA

- EGUBAKOITZA, 27**
ZABALA. Barrenkalea 25. . 943 76 16 87
- ZAPATUA, 28**
GUALLAR. San Antonio 5 . 943 76 11 05
- DOMEKA, 29**
GUALLAR. San Antonio 5 . 943 76 11 05
- ASTELEHENA, 30**
ESTELLA. Mabiategi 5 . . 943 76 19 63
- MARTITZENA, 31**
MOZOS. Iparragirre 2 . . . 943 76 12 15
- EGUAZTENA, 1**
CAMACHO. Oxirondo 4. . . 943 76 11 74
- EGUENA, 2**
ZABALA. Barrenkalea 25. . 943 76 16 87

TELEFONOAK

- OSASUNA / LARRIALDIAK**
- Anbulatorioa (txanda) . . . 943 03 54 00
 - Bergarako Udaltzaingoa . . . 943 77 91 06
 - Antzuolako Udaltzaingoa . . 943 76 62 46
 - Ertzaintza 943 53 47 20
 - Asepeyo 943 76 16 43
 - Pakea 943 76 13 49
 - Angiozarko medikua 943 78 90 27
 - Antzuolako medikua 943 76 62 23
 - Odol emaleak 943 76 16 24
 - Alkoholiko Anonimoak . . . 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
 - Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
 - Udal Artxiboa 943 77 91 32
 - Igerilekuak 943 76 20 51
 - Kultura etxea 943 77 91 58
 - Liburutegia 943 77 91 62
 - Kirolegia 943 76 56 41
 - Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
 - Erregistroa 943 76 13 15
 - Jardun 943 76 36 61
 - Postetxea 943 76 26 85
 - Bedelkar 943 76 04 68
 - Akulu AEK 943 76 05 18
 - Udal Euskaltegia 943 76 44 53
 - Bergarako notariotza 943 76 10 73


MEZAK

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan,
10:30ean eta 13:00etan.
 - San Pedro**
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean eta 12:30ean.


URBANOAK

- San Lorenzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Mabiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
- GERALEKUAK:** Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugerza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ATREBENTZIAEZPADA/ Non pasatzen dituzue neguko asteburu arratsaldeak?




ANDONI GALLASTEGI



IÑAKI GALARRAGA



MADDI MUXIKA



JANIRE FERNANDEZ



AITOR ZENGOTITABENGOA



ISMENE GOROSTIDI

Lagunekin seminarioko patioan jolasten gara. Eurria eta hotza egiten duenean, berriz, etxean gelditzen gara filmaren bat ikusten, zinemara kanpora gutxitan joaten gara eta. Jolaserako nahiago dut uda.

Litxarrerriak erosi eta lagun baten etxera joaten gara. Noizean behin Jardunek antolatzen dituen aisialdi ekintzetan ere hartzen dugu parte. Euririk ez badihardu, berriz, seminarioan jolasten gara.

Lagunok bata bestearen etxera joaten gara; bestela, ez dugu zeregin askorik izaten. Euririk ez bada kalean ibiltzen gara. Guretzat aisialdirako zerbait falta da; zinema kentzea erru handia izan da.

Euririk ez bada kalean ibiltzen gara edo ziburuetan. Bestela, lagun baten etxera joaten naiz jolastera edo film bat ikustera. Batzuetan Jardunekoekin ere joaten naiz jolastera edo eskulanak egitera.

Euritik eta hotzetik babes-teko arkupea dagoen lekuren batera joaten gara. Han baloiarekin jolasean ibiltzen gara edo besterik gabe berriketan. Lagunen etxera ere joaten gara inoiz, baina oso gutxitan.

Ni ludotekara joaten naiz. Bertan jostailuak daude eta arratsaldea eskolako lagunekin jolasean pasatzen dut bertan. Udan batzuetan ibiltzen gara kalean jolasean, baina neguan ludotekan ez bada etxean.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK IBAIONDO, ZIKIN Ibaiondo kaleko bizilagun batek deitu digu, han ibiltzen diren gazteek kalea oso zikin uzten dutela salatzen: "Atsedean orduan ogitartekoa jatera etortzen dira eta zikinez beteta uzten dute dena. Behin baino gehiagotan kexatu izan gara udalarekin, baina ez digute kasurik ere egiten. Lotsagarria da". /E.M.

BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Txikitu"



Baldiakin eskaparate kristala txikitu giñuan.

JON IRAEGI

IRAKURLEAK MINTZO

ESKERRAK EMANEZ BI HITZ PILOTAKO FAMILIARI

Zuei esker Arnedilloko bainuetxean Patxik eta biok asteburu zoragarria pasa dugu.

Eskerrik asko bene-benetan. "Zure pilotariak" hitzak daromatza idatzita zuek oparitutako ordulari bitxi hark. Eta esan behar dut niri izugarriko zirra-eragiten didala erlojuari begiratu eta hori irakurtzen dudako bakoitzean.

Nire bizitzaren zati handi bat zaretela adierazi nahi dizuet hitz labur baina bihotzetik esandako hitz hauekin.

Besterik gabe, mila esker.

REYES AZKOITIA

HAUGIROA!

MINIMOA **-1°C**
Martitzena, 24

MAXIMOA **12°C**
Eguena, 19

ASTEKO EURIA (l/m²) **9 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 18	11°C	7°C	5,8 l/m ²
Eguena, 19	12°C	8°C	- l/m ²
Egubakoitza, 20	9°C	6°C	2,1 l/m ²
Zapatua, 21	12°C	7°C	1,1 l/m ²
Domeka, 22	11°C	3°C	- l/m ²
Astelehena, 23	12°C	-1°C	- l/m ²
Martitzena, 24	12°C	-1°C	- l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

BERAIEK DINOE/ Mikel Elkoroberezibar



Kantitateari begira

Bergarako herrian azken boladan arazoak pila-tzen ari zaizkio Udal Gobernuari. Alde bate-tik, haur eskola publikoa eskatzen ari diren gurasoak sekula-ko pazientziak ari dira euren eskakizunak egiten Udalbatzetan. Bestetik, Zabalotegiko auzokide-ak ikusirik urte bat-zuk barru zer dator-kien, hau da trafiko gehiago, zaratak, aparkatzeko leku gu-txiago... mobilizazio-etan hasi dira Uda-lak egindako proiektuari ezezko garbia erakusteko. Zubiaurren oraindik ez dira mobilizazio-ak hasi, baina eguna joan eta eguna etorri trafikoarekin dauden arazoak gero eta larriagoak dira.

Hori gutxi balitz zinema are-to baten aldekoak hor ari dira gure herrian zinema ikusteko aukera eskatuz. Sinadurak, iza-rak balkoietan, bilerak... lan bi-kaina benetan, baina ikusirik San Martin plazako eraikinean agintzen dutenen sentsibilita-tea: "Zinemaren aldeko sinatzai-le guztiak zinemara joan izan

balira. Novedades zabalik legoke orain", adierazi du alkate jaunak... Ba zinema ikustera Elgetara, Arrasatera edo Elorriora joan beharko dute denboraldi batean behintzat.

Arrazoa dauka alkateak, baina egia da ere inguruko herrietan dauzkaten kultur are-toak izango bagenitu, ez gehiago ezta gutxi-ago ere, Bergaran zinema baldintza ego-kietan ikusteko auke-ra izango genukeela. Gainera, gabezia horren erantzuleak ez dira zinemaren alde sinatu dutenak, Udaleko Gobernu Taldearen gestio eskasaren ondorioa baizik.

Gainera eredu horri jarraituz hemendik aurrera herriko talde eta elkarteek argi ibili beharko dute. Izan ere Udalaren aldetik laguntza jaso nahi baldin badute ahalik eta lagun gehien biltzen saiatu beharko dute antolatzen dituzten ekintzetan. Zeren Udaleko agint-riek ez diote kalitateari begira-tzen, kantitateari baizik eta horrela ikusi besterik ez dago zenbat arazo sortzeko gai diren.

"Inguruko herrietan dauzkaten kultur aretoak bagenitu zinema baldintza egokietan ikusiko genuke"

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Irati Agirreazaldegi
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
8.680 ale

Goiena
Kommunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurifartzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2006ko urtarrilaren 27a / 273. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Kultur taldeen elkarlana bultzatu nahi du Udalak

AINZANE IRIZAR

Aurreko astean egin zuten lehendabiziko batzarra herriko kultura taldeek eta Udaleko arduradunek. Eta Udalak proposamen bat eraman zuen lehenengo hitzordu hartara: guztien artean Herri Eguna edo beste ekitaldiren bat antolatzeari, hain zuzen ere.

Udaleko kultura arloko arduradunek bultzatuta, herriko kultura elkarteek eta Udaleko arduradunek osatutako foro bat eratu dute. Helburua da Udalaren eta elkarten arteko harremana sendotzea, batetik, eta beste alde batetik, elkarten euren arteko hartu-emana areagotu eta herriaren parte-hartzea bultzatzea.

Juan Luis Aranburu Udaleko Kultura teknikariak adierazi digunez, kultura talde eta elkarten egoeraren diagnostia egin eta ikusi zuten taldeon egoera nahikoa ona zen arren, oso era autonomoan funtzionatzen zutela. Elkarren berri izan eta elkarlana bultzatzeko zerbait egin beharra ikusi zuten.

PROPOSAMEN BAT, HERRI EGUNA

Aurreko astean egin zuten lehendabiziko batzarra Udalak eta elkarteek. Hantxe, proposamen bat aurkeztu zuen Udalak: Herri Eguna edo antzerako zerbait antolatzea. Azken baten, helburua da aurrez aipatu duguna: harremanak sendotzea eta herriaren parte-hartzea eragitea. Harrera ona



Kultura taldeekin lehenengo batzarra aurreko astean egin zuten.

Oraingo astean kirol elkarteetako ordezkariekin elkartzekoak ziren, helburu berekin

izan zuten proposamenak, eta aurrerantzean batzarrak egiten jarraitzekotan geratu ziren parte hartu zuten ordezkariak.

Musika Eskolak, Oinarin dantza taldeak, trikitilariak, abesbatzak, Idolazek, Pausoka gurasoen elkarteak, Mairuaren Alardearen elkarteak eta alderdi politikoetako ordezkariak parte hartu zuten batzarrean. EHEko-ei ere egin zitzaizkien deialdia. Aranburuk adierazi digunez, hala ere, foroa irekia da eta nahi duen orok parte hartu dezake.

Oraingo astean, berriz, kirol elkarteetako ordezkariekin elkartzekoak ziren, antzerako helburuekin.

KULTURA

Iturbeandia baserria, monumentu izendatuta

AINZANE IRIZAR

Oraingo astean jakin dugu Lizarraga auzoko Iturbe Handia baserria monumentu izendatu duela Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak. Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartu dute Antzuolako baserri hori, Kultura Ondasun gisa eta Monumentu izendapenarekin.

XIV. MENDEKO BASERRIA

XIV. mendean eraiki zuten Iturbeandia eta Fortun Perez de Yrtunbe izeneko bat bizi zen 1307. urtean.

Fatxada nagusiaren beheko solairua harri-hormaz eginda dago eta erdi-puntuko bi arku ditu. Lehen solairuan, berriz, armari ederra eta bitxia ikus dezakegu.



San Martzial ermitatik gertu dago, Lizarraga auzoan, Iturbeandia baserria.

LABUR

Toponimiaren gaineko liburua otsailaren 10ean, egubakoitza, aurkeztuko dute

Jarri dute Kristina Pavoren toponimiaren gaineko liburua aurkezteko eguna. Bi aste barru, otsailaren 10ean, egingo dute aurkezpen hori. Antzuola Ikerketa Bekaren emaitza da liburu hori, eta mapa eta guzti argitaratuko dute.

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

MUEBLES IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

LARREA
TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJIKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

ELKARRIZKETA

EIDER ARZELUS/SEXU HEZITZAILEA

"Jarrerrek asko komunikatzen dute; gauza guztiak ez ditugu berbaz azaldu behar"

Sexualitatearen gaineko tailerra eskainiko du Eider Arzelus sexu hezitzaileak Gaztegunean. 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta dago tailer hori, eta zapatuan eta domekan, bina orduko saioak izango dituzte.

Zertaz, zehazki, jardungo duzue Gaztegunean oraingo asteburuan?

Lau orduko tailerra izango da; zapatuan bi ordu eta domekan beste bi. Gehienbat, informazioa landuko dugu; sexu hezitzaileok informazioa, jarrera eta jokabidea landu ohi ditugu, baina, lau ordu denbora gutxi denez, informazioan oinarrituko gara, bereziki. Eurek zer informazio mota daukaten ikusi beharko dugu lehendabizi. Sexua koitoarekin lotzen dute gaztetxoek, helduon antzera, eta hortik haratago joango gara; sexualitatea hori baino askoz gehiago dela ikusiko dugu tailerlean.



Zela bizi dute sexualitatea 12-16 urte arteko gaztetxoek?

Lehenengo antzera, guk bizi genuen antzera. Gaur egun informazio asko daukate, askotan, gehiegi; izan ere, informazio egokia eta desegokia iristen zaie eta dena nahasten dute. Horrek urdu-

ritasuna eta kezkek sortzen dizkiete, nahiz eta askotan eurek uste duten dena dakitela.

Komunikabideetatik ere informazio asko jasotzen dute, ezta?

Bai, baina komunikabideetatik jasotzen duten informazio ona

izaten da, kanpainetatik iristen zaiena. Filmetakoa, azken baten, fikzioa da, eta interneten ere asko dago fikziotik. Aldizkariak ere erabiltzen dituzte.

Komunikabideak eta zuen lana aipatu ditugu, baina gurasoak ere hor daude.

Gurasoen jarrera sexualitatearen aurrean aldatzen hasi da, baina gure gizartean tabu bat izaten jarraitzen du sexuak. Gurasoek karga sozial bat daukate gai honen inguruan, guk baino handiagoa, gainera. Sexualitatea gurekin jaiotzen da eta gurekin hiltzen da, baina, gurasoak kezkatzen hasten dira seme-alabak nerabegarora iristen direnean. Jendeak, gainera, uste du ahoz azaldu behar direla gauzak, baina jarrerekin ere asko komunikatzen dugula kontuan hartu behar dugu; adibidez, film baten sexu eszenak hasten direnean katez aldatzeak zerbait komunikatzen die umeei; edo gurasoek euren gorputza seme-alabei ezkutatzeko ere zerbait esaten die umeei.

HERRITARREN HITZA/Iraia Gabilondo · Ikaslea

Adierazpen askatasuna (adierazpen akastasuna)

Gaur egun ez dago hil beharrik zoriontsu izateko. Guk ezagutzen dugun gizarte honetan, gizabanako oro zoriontsunaren bila dabilela esan daiteke. Nire ustez, zoriontasun horrek, pertsona gisa errealizatzearekin harreman zuzena du. Giza errealizazio horretan berebiziko garrantzia du horrenbestetan aditu dugun adierazpen askatasunak.

Oinarritzko eskubide horren egikaritzea modu askotan eta bizitzako alor ezberdinetan egin daiteke, pentsamenduak, ideiak eta iritziak, hitzez,

idatziz nahiz beste edozein modutan askatasunez azaldu eta zabaldu daitezke eta. Mao Zedong txinatar iraultzaileak esan zuenarekin bat nator: "Ernal daitezela ehun landare, jarki daitezela ehun pentsamolde".

Zenbat eta iritzi ezberdin gehiago egon, orduan eta zailagoa izango da guztiok ados jartzea, baina sarritan, aurkitu nahi dugun



"Zoriontasunean oinarritzkoa da adierazpen askatasuna"

eskuratzeko beharrezkoa da besteen pentsamenduak eta

hori, helmugan baino bidean aurkitzen dugu. Gure inguruan geroago eta pentsamolde gehiago baldin badaude, ikuspegiak bestelakoak badira, orduan eta pluralagoak izango gara eta egoera ezberdinei aurre egiteko baliabide gehiago izango ditugu. Giza baliabide horiek

iritziak entzun, irakurri eta ikusteko eskubidea eta ahalmena izatea.

Beraz, beharrezkotzat jotzen dut, oinarritzko eskubidea den adierazpen askatasuna edonoren edo edozeren gainetik bermatuta egotea, gizabanakoaren errealizazio bidean, zoriontasunean, oinarritzkoa dela uste dut eta.

Pertsona bakar bati dago-kionean horrelako garrantzia baldin badauka adierazpen askatasunak, ezin imajinatu kolektibo oso baten gain eskubide horrek izan beharko lukeen garrantzia.

LABUR

Papera eta kartoia edukiontzietan sartu behar da

Udaletik eskatu digute honako oharra helarazteko Antzuolako herritarrei: papera eta kartoia dagokien edukiontzian sartzeko, eta kanpoan ez lagatzeko.

Kontua da, batzutan, edukiontzia beteta dagoelako lagatzen duela jendeak kartoia eta papera edukiontzitik kanpora. Horrela, baina, euria egiten badu, bereziki, hondatu egiten da kartoia eta inguruak zikindu egiten dira.

Udaberri Sariari ekin diote Olaldeko pilotariak

Gazte mailako pilotariak ondo hasi dute Udaberri Sariako Txapelketa. 13 eta 22 irabazi zuten, Zumaian. Gaur, egubakoitza, 20:00etan, bergararren kontra jokatu dute, etxean.

Paletaz, berriz, oraingo asteburuan hasiko dute txapelketa, kanpoan, Gaztelekuren aurka. Altxatarra, Zumaia, Gazteleku eta Urnieta daude Olaldekoen multzo berean.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA
Urtarrilak 28
16:00: Antzuola-Orioko (Gazteak)

PILOTA
Urtarrilak 27 (Udaberri Saria)
20:00: Olalde-Bergara (Gazteak)

EMAITZAK

FUTBOLA
Amaiak Bat 7 Antzuola 1 (Gazteak)

PILOTA
Udaberri Saria
Zumaia-Olalde (Gazteak) 13-22
Gipuzkoako Txapelketa
Olalde-Aurrera Saiatz (Infant) . . . 10-18

LEKY-BERRI MERENDEROA

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA



Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2006ko urtarrilaren 27a / 254. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldeggi • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Ozkarbik erretiratuaren elkarteari buruzko hitzarmena egin nahi du Udalarekin

IRATI AGIRREAZALDEGI

Urteko batzarra izan zuten joan zen egunean Ozkarbi elkartearen. Urteko kontuen berri emateaz gain, beste zenbait gai izan ziren mahai gainean. Presidente berria ere aukeratu zuten: Gaizka Bolinaga. Elkartearen inguruko kontuak azaldu dizkigu.

Herrian bazkide gehien dituen elkarte da Ozkarbi; 300 bazkide inguru. Horietaz gain, 170 erretiratu ere bertan dute egoitza.

Urteko batzarra egin dute, eta zenbait gai garrantzitsu izan zituzten hizpide.

Baserritarrekin eraikina erabiltzen jarraitzeko egin duten tratua berri eman zuten lehenengo. Ondoren, barne araudiko aldaketak jakinarazi zituzten.

Batzarreko beste gai bat kuoten igoera izan zen: "Azken urteotan galerak izan dira elkartearen eta mantentze-lanak ere egin ditugu; beraz, kuotak igotzea erabaki dugu: 36 eurotik 60 eurora. Kuotekin gastu finkoei aurre egitea da asmoa", esan digu Gaizka Bolinagak.



Ozkarbik 300 bazkide ditu; baina herriko 170 erretiratu ere bertara joateko aukera daukate.

ERRETIRATUEN ELKARTEA

Batzarrean bazkideei jakinarazi zieten elkarteak hitzarmen bat egitea proposatu diola Udalari.

Hitzarmenaren bidez, idatziz jaso nahi dira Udalaren, erretiratuaren elkartearen eta Ozkarbiren arteko harremanei dagozkien bal-

dintzak. "Erretiratuak Ozkarbin dute egoitza eta Udalarari eskatu diogu, besteak beste, elkartearen gastuen zati bat ordaintzea", dio

Udalarekiko hitzarmena Aste Santurako sinatuta egotea nahi du Ozkarbik

Bolinagak. Aste Santurako sinatuta nahi dute hitzarmena.

EGUNKARIAK

Ozkarbin zein egunkari hartu erabakitzeke ere izan zen eztabaidarik. "Bazkide batek proposatu zuen *Noticias de Gipuzkoa* erostea, eta luze berba egin ondoren, erabaki zen nahikoa zela kau egunkari erostea eta eztabaidatu ondoren, bozketa bidez erabaki genuen aurrerantzean *Berria*, *Diario Vasco*, *Noticias de Gipuzkoa* eta *Gara* hartzea".

Tabakoaren lege berriari buruz, orain arte bezala elkartearen erretzen jarraitzea adostu zuten gauzak argi ez daudelako.

Zuzendaritza batzorde berria otsailaren hasieran elkartuko da aurtengo lan jarduna zehazteko.

UDALA

Aurrekontuen gaineko osoko bilkura atzeratu egingo dute proposamena moldatzeko

I.A.

Udal aurrekontuen gaineko osoko bilkura egitekoak ziren urtarrilaren 31n, baina Udaltik jakinarazi digutenez batzarra atzeratu egingo dute. EAJ-EAK egindako proposamenean zenbait aldaketa egingo dituzte, eta horretarako tarte luzeagoa behar dute.

Udala ia zuzen batzuk saltzekoa zen, baina salmenta ez dute aurtengo urte hasierara arte egin. Hori dela eta, 2006ko aurrekontu

proposamenean azken uneko aldaketak egin behar dituzte. Patxi Basaurik esan digunez, "aldaketa horiek ez dute aparteko eraginik izango aurrez egindako proposamenean. Baliteke kopuru batzuk moldatzea, baina mugimenduak oso txikiak izango dira".

ARALARRENTZAT EZ DA ERREALA

Aralarrek prentsa ohar baten bidez esan digu "aurkeztutakoa ez zela erreal. EAJ-EAK zabaldu duen proposamena aldatu egin du azken momentuan. 2005eko

aurrekontua superabitarekin likidatzea aurreikusitako arren, gestioan izandako akatsen ondorioz defizitarekin itxiko da".

Proposamena erreala ez dela esateko bi arrazoi eman dituzte Aralarrek: "Diru sarrera aurreikuspena ez zen erreal; defizita egongo zela seguru geunden, eta denborak arrazoi eman digu. Bestetik, EAJ-EAK aurkeztu zuen 5.443.502 euroko aurrekontua eta erabili dira 3.400.747 euro. Hori ez dio azaldu EAJ-EAK herriari. Ezta zeintzuk diren egin ez diren inbertsioak".

PROPOSAMEN BERRIA

Herritarrei jakinarazi diete "Aralar ez dagoela prest edozer onartzeko". Hala ere, EAJ-EAekin aurrekontuak adostu nahi dituzte eta diote "seriotasuna badago eta gauzak argi eta garbi azaltzen badira posible dela".

Azken orduko aldaketa hauek direla eta euren proposamena "hankaz gora" geratu dela diote, baina "prest gaude aurrekontu proposamen berriari behar beste buelta emateko eta ia Elgetako bi alderdi nagusienok bat egiterik dugun".

LABUR

Bular minbiziaren prebentzioari buruzko hitzaldia

Otsailaren 1ean, eguaztena, hitzaldia izango da 18:00etan udaletxe osoko bilkuren aretoan. Bularreko minbiziaren prebentzioaren gainean jardungo du Donostia-ko Onkologia Institutuko sendagile Lourdes Aritziturrik. Bularreko eta Ginekologiako Minbizia duten Emakumeen Katxalin Elkarteak eta Elgetako Udalak elkarlanean antolatutako hitzaldia da. Interesa dutenei eta bereziki herriko emakumeei egin nahi diete gonbidapena hitzaldira joateko.

HEZKUNTZA

Izaskun Larrea: "Haurreskolara joan nahi duen umerik ez da kalean geratuko"


Udaleko Hezkuntza batzordeko Izaskun Larreak hainbat azalpen eman ditu haurreskolaren gainean. Besteak beste, esan digu 2007-08 ikasturtetik aurrera Torrealdean egongo dela haurreskola eta bitartean eskaria egiten duten ume guztiek izango dutela lekua.

Haurreskolari buruz azkenaldian agertu diren berriak direla eta hainbat azalpen eman ditu Izaskun Larrea Hezkuntza batzordeko buruak: "Gai honi buruz oso argi utzi nahi dut Elgetako ume guztiak haurreskolara joateko aukera inoiz ez dela zalantzan egon, eta hori horrela izan dadin iazko azarotik hona ni arduratu naizela pertsonalki bai Haurreskolak partzuergoko gerentearekin eta herriko haurreskolako arduradunekin egon eta egoera argitzen; baita agertu diren gurasoei azalpenak ematen ere".

Gaineratu du eskaria egiten duten umeen kopurua handia izan arren, ez dela arazorik egongo. "Teorian Elgetako haurreskolak hamar umerendako tokia du, baina datorren ikasturtean ume kopuru handiagoa izango balitz, adostuta dugu nahi duten ume guztiak onartuko direla", esan digu Izaskunek.

TORREALDERA

Udaleko Hezkuntza batzordetik esan digute euren asmoa dela haurreskola 2007-2008 ikasturtetik aurrera Torrealdean egotea. Izaskun Larrearen hitzetan, "haurreskola Herriko Eskolan jartzea behin-behineko erabakia izan zen, Torrealdeko etxeak bukatu artekoa. Gure asmoa 2007-08 ikasturtearen hasierarako haurreskola berria gertu izatea da. Hala ere, lanegatik edo atzerapenen bat gertatuz gero, hitzartuta daukagu Herriko Eskolan segitzea Torrealdekoa bukatu bitartean".



Hezkuntza batzordeko burua da Izaskun Larrea zinegotzia.

LABUR

San Blas eta Santa Ageda ospakizunak otsailaren 3an

Herri Eskolako ikasleek otsailaren 3an ospatuko dituzte San Blas eta Santa Ageda egunak. Barikuan da San Blas eguna, eta goizez opilak egingo dituzte eskolan. Santa Ageda eguna otsailaren 5ean bada ere, haren omenez barikua arratsaldean irtengo dira kantura eskolako umeak. 14:30ean abiatu eta herriko kaleetan egingo dute eskea. Batutako dirua Inauterietan askaria egiteko erabiliko dute.

ZUZENKETA

Joan zen barikuan, udal batzordeen gainean kaleratutako albistean esan genizuen Beatriz Gallastegik hartuko duela Euskara eta Gazteria azpi batzordeen ardura. Gaizkiulertu baten ondorioz abizena oker jarri genuen, eta Gallastegi beharrean Beatriz Basauri behar zuen. Barka okerrak.

GERRA ZIBILA

Oroigarria Elgetan biktimen omenez

Espainiako gerraren 70. urtemuga dela eta, ekitaldi sorta antolatu du Eusko Jaurlaritzak. Urtemuga baliatuz, "demokraziaren eta askatasunaren alde borrokatu eta diktadura frankistaren jazarraldia, erbestea eta heriotza jasan zuten guztiei omenaldia egin nahi diegu", jakinarazi du Eusko Jaurlaritzako bozeramaile Miren Azkaratek.

ELGETAN MONOLITOA

Hasteko, otsailean Nestor Basterrearen eskultura bat ipiniko dute Bilbon, frankismo garaiko biktimak goratzeko.

Bestalde, gerrak bereziki astindutako herrietan, Turtziozen eta Gernikan esaterako, gobernu bilerak egingo ditu Jaurlaritzak urtean zehar.

Elgetan ere Intxorta gudu lekua izan zenez, oroigarriren bat ipintzekoak direla jakinarazi dute. Ekitaldia non eta noiz egingo duten zehaztu gabe dago, baina baliteke egun oroitarrria dagoen tokian, Asentzian, ipintzea.

Espainiako gerrak Euskadin izan zuen bilakaera ikertzeko lanak ere sustatuko ditu Jaurlaritzak. Lanok frankismo garaian desagertutako eta fusiutatutako lagunak identifikatzeko lanen osagarri izango dira.



Espainiako gerran hildakoen gorputzak aurkitu zituzten Intxortako magalean.

KULTURA

Zinema musikatua gaur eta antzerkia datorren barikuan

Gaur, barikua, zinema emanaldia izango da Espaloian 22:30ean. Baina ez da ohiko film emankizuna gaurkoa; zinema musikatua gertatu dute antolatzaileek. Bestalde, antzerki saioa dago iragarrita datorren barikurako: Yllana taldearen *Olimplaf*.

Buster Keaton eta Clyde Bruckmanek zuzendutako *The General* filma emango dute. Komedia kutsuko film hau Ipar Amerikako gerra zibilean kokatuta dago; eta treneko makinista batek bahituta dagoen neskalaguna berreskuratuko du bertan.

Film emanaldiaren berezitasuna, ordea, musika izango da; zuzeneko musika, hain zuzen ere. Medin Peiron pianojole kataluniarrak zuzenean joko du isats-pianoa, film mutua ikusgai den bitartean. Besteak beste, Eric Satieren *Gnosyenes* eta Beethovenen *Sonata apassionata* joko ditu Peironek.

Musika estetika berriengana zaletasuna erakutsi du eta bakarlarri moduan sormenari zuzendutako nazioarteko jaialdiaren parte hartu du.

Emanaldirako sarrerak bost euro balio du eta bazkideendako hiru euro.



Yllana taldeak keinu bidezko *Olimplaf* lana eskainiko du hurrengo barikuan.

ANTZERKIA

Bestalde, datorren barikuan, otsailaren 3an, Yllana taldeak *Olimplaf* antzezlanaren eskainiko du 22:30ean Espaloian.

Olinpiada berezi batzuetan parte hartuko dute hiru atletak. Podiumean ahalik eta goren iristeko hainbat trikimailu erabili-

ko dituzte; eta ikusleak ere euren amarruen konplize bihurtuko dituzte.

Adin guztietarako egokia den ikuskizunean keinuen bidez ikusleak gozaraziko dituzte aktoreek.

Sarrerak jadanik salgai daude 12 eurotan, eta bazkideendako hamar euroren truke.

Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2006ko urtarrilaren 27a / 35. azken zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: SS482/05

Jaurlaritzan daude tranbiari egindako herritarren 35 alegazioak eta Udalarena

OIHANA ELORTZA

Ikusten duten arazoei irtenbidea emanda eta sinadurak bilduta aurkeztu dituzte alegazio batzuk. Olabarrietako eta Zubillagako auzotarrek, esaterako, geltokiak eskatu dituzte. Udalak ere aurkeztu ditu bere alegazioak eta Jaurlaritzara bidali ditu guztiak.

Herritarrek, ikastetxeak, enpresak, Udalak eta Ereittenek aurkeztu dituzte alegazioak, besteak beste. Horietako batzuk alegazio indibidualak dira, tranbia etxe aurretik ez pasatzeko eskatzen dutenak, adibidez. Beste batzuk, ordea, sinadurak bilduta aurkeztutako alegazioak dira, arazoak ze irtenbide eduki dezakeen aztertzen dutenak. Esaterako, batzuek uste dute nahikoa dela tranbiak karril bakarra izatea herri barruan, eta horren aldeko alegazioa aurkeztu dute.

Bestalde, Olabarrieta auzokoek tranbia haraino heltzea eskatu dute eta bi geltoki aurreikusitu dituzte: auzoan bat eta Aias-tui baserriko bidegurutzean beste. Zubillagako auzotarrek ere geltoki bat eskatu dute euren auzoan.



Olabarrietako biztanleek tranbia auzoraino heltzea eskatu dute.

UDALAREN ALEGAZIOA

Udalak tranbiari aurkeztu dizkion alegazioen artean dago, besteak beste, hiru geltoki jartzea Eloregetik herrira bitartean: Garibain, Santxolopetegin eta Zubillagan. Ulmako biribilgunea


mantendu egin behar dela ere jaso du eta Zubillagako zati baten trazadura auzoaren erdialdera mugitzea aztertzeke eskatu du.

Orain Jaurlaritzari helaraziko dizkio alegazio guztiak Udalak. Oraindik ez dakite noiz hasiko

diren aztertzen, baina ordurako ekaina helduko dela uste dute.

HERRI KONTSULTA

Lanekin hasi aurretik herri kontsulta egitea proposatzen du Ereittenek, Oñatiren iritzia ikusteko.



Igartuaren margolanak

Jose Felix Igartua margolariaren lanak ikusgai daude kultura etxeko erakusketa gelan. 50 pintura baino gehiago daude. Oso koloretsuak dira eta gehienak paisaiak dira; asko ezagunak, gainera. Erakusketa otsailaren 12a arte egongo da zabalik eta egunero ikus daiteke, 18:30etik 20:30era.

Jose Felix Igartua artista Ermuan jaio zen. Azken urteotan diseinu grafiko, argitaletxe eta inprimategietan egin du lan. Hainbat erakusketa egin ditu. /O.E.

LABUR

Txandak batzar orokorra egingo du datorren hilean

Txandak urteko batzar orokorra egingo du otsailaren 23an Santa Anan. Txanda elkarteko batzordean hamar lagun daude: horietatik bostek kargua utziko dute eta beste bost aukeratu dituzte. Zuriñe Mendia izan da presidentea azken bi urtetan eta orain beste bat aukeratu dute. Txanda barruan 91 denda daude eta denda bakoitzak boto bat izango du batzar orokorrean. Bi urtetarako karguak izango dira.

Parrokiako misio taldeak herritarrek eskertzen ditu

Parrokiako misio taldeak herritarrek eskertu gura ditu Gabon egunetan zabaldu zuen bidezko merkataritza dendak izan duen arrakastagatik.

Talde honek eskertu gura ditu, batetik, herritarrek partehartze oso altua izan dutelako dendan. Bestetik, Oñatiko Udala eta baita Jesus Iñurritegi, baimenak eta lokala uztearren, hurrenez hurren.

Umeendako ikuskizuna dago domekan

Cantervilleko mamua izeneko ikuskizuna eskainiko die umeei Hankatxo antzerki taldeak. Bost urtetik gorakoendako da ikuskizuna eta Santa Anan da domekan, etzi, 17:00etan. Sarrerak lau euro balio ditu aurretik eta leihatilan. Sarrerak kultura etxean erosi daitezke gaur, egubakoitza, arratsaldean edo bihar, goizean.

Amerikako familia bat Ingalaterrako gaztelu batera doa bizitzera baina ez daki Cantervilleko mamua bizi dela gaztelu horretan. Familiak pentsatzen du, ordea, mamuarekin beldurtu beharrean berarekin batera ondo pasatzera eta barrabaskeriak egitera.



ARANBURU

HORTZ KLINIKA

Arrate Frías Capanaga odontologoa
Teleforo Aranzadi 1 • BERGARA • Tel.: 943 76 02 46

PADI



Goian, Susana eta Jabi. Behean, Arrate

ODONTOLOGIA OROKORRA
ENDODONTZIA
PROTESIAK
PERIODONTZIA
ESTETIKA

HORTZEN ZURITZEA
AHOKO KIRURGIA
INPLANTEEN KIRURGIA
ORTODONTZIA

ESPEZIALISTAK

Sergio Esteban Cuco doktorea
• Odontologoa
• Masterra ahoko kirurgian eta inplanteen kirurgian

Luis Lopez Areal doktorea
• Estomatologoa
• **Espezialitatea:** Ortodontzia



ARANZADI IKASTOLA



elkarrekin hazi, hezi eta bizi euskaraz

2006/07 ikasturterako
matrikulazio epea
zabalik
otsailaren 6tik 17ra.



Haur Hezkuntza



Lehen Hezkuntza



D.B.H.

Batxilergoa



ARANZADI IKASTOLA
Herri Onurako Irakaskuntza kooperatiba

H A U R H E Z K U N T Z A T I K B A T X I L E R G O R A



MATRIKULAZIO EPEA OTSAILAREN 6TIK 17RA




SAN MARTIN ESKOLA
HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA
(HH-LH) (2-12 urte)

Boni Laskurain 25 Tel: 943 76 21 47
e-maila: 012265aa@hezkuntza.net
www.goieskola.net/sanmartinagirreeskola

IPINTZA INSTITUTUA
DERRIGORREZKO BIGARREN
HEZKUNTZA (12-16 urte)

Boni Laskurain 19 Tel: 943 76 31 42
e-maila: 012981aa@hezkuntza.net
www.goieskola.net/ipintzabhi

ORDUTEGIA: 09:00etatik 13:00etara/ 15:00etatik 17:00etara



GURE ESKOLAN PERTSONAK OINARRI



SAN MARTIN

M. ALTUNA

IPINTZA

HHE-EPA

BERGARAKO

IKASTETXE

PUBLIKOAK